

Tokiko Agenda 21eko Foroaren akta

Gaia: Legazpiko Kale Nagusia hobetzeko proiektua



2015eko otsailaren 2an, 18:30etik 20:45era, Legazpiko udaletxeko Batzar Aretoan.

Laburrean

Gaur, astelehena, - agendan aldaketa zehatz bat egin ondoren-, 30 bat pertsona elkartu gara Legazpiko Agenda 21eko Foroak aurten egiten duen lehenengo tailerrean.

Tailer honetan:

1. Kale Nagusia **hobetzeko eta berritzeko proposamena** ezagutu dugu. Proposamen hori udaletxeko Hirigintza Sailak egin du, 2014ko urrian merkatariekin, ikasleekin, bizilagunekin eta Agenda 21eko Foroarekin adostutako irizpideetatik abiatuta.
2. **Zirriborro hori aberasten** saiatu gara, behin betiko proiektua marraztea ahalbidetuko duten ekarpen berriak eginez.

Segidan, ikus dezagun puntuz puntu.

1. Nortzuk? Parte hartu duten pertsonak

Gaurko tailerrean **talde handia eta desberdina** izan dugu: Kale Nagusiko bizilagunak, merkatariak, Foroko ohiko kideak, arduradun politikoak, teknikariak,....



Hona hemen izen-abizenak¹:

Bizilagunak, merkatariak eta Tokiko Agenda 21eko Foroko kideak:

- Manuel Fernandez (Nagusilan)
- Jesus M^a Osinalde
- Lourdes Beristain
- M^a Luisa Bereziartua
- Lucia Areizaga
- Eugenio Gil (Korosti zikloturistak)
- Maite Lonbide
- Jesus Lazkanoiturburu
- Montse Vallejo
- Koldobike Olabide
- M^a Cruz Lizarazu
- Mari Puri Razquin
- Enrique Vizcay eta Juan Luis Ormazabal (Telleriarteko Txirrindulari Elkarte)
- Mikel Agirreburualde
- Francisco Javier Zelaia
- Maite Odriozola
- Juan Pedro Agirre
- Edurne Huesa (Ingurugela Legazpi)
- Lina Etxaniz
- Arantza Retegi
- Rosa Murua
- Kloti Osinalde
- Aitor Mendia (merkataritza sustatzeko bulegoa)

Udal ordezkariak:

- Kepa Urzelai, alkatea
- Igor Urrate, zinegotzia
- Arantza Arizmendi, zinegotzia
- Sagrario Etxabe, zinegotzia
- Rakel Puente, zinegotzia
- Oscar Valbuena, zinegotzia
- Ane Mendiñeta eta Aitziber Olarte, arkitektoak
- Inma Hernandez, Tokiko Agenda 21eko teknikaria

¹ Bi pertsonen datuak falta dira, ezin izan baikenuen haien izenak hartu.



Legazpiko Agenda 21 de Legazpi

Guztion parte hartzearekin, iraunkortasunaren bidean



Eta horiez gain,

- Carmen Virto eta Nagore Errasti, Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailekoak.
- Prometea –Zorione Aierbe eta Iciar Montejo- errazte-lanetan.

2. Kale Nagusia berritzea: udal proposamena eta Foroaren ekarpenak

Kepa Urzelai alkateak ongi etorria egin ondoren, buru-belarri sartu gara gaurko gaiarekin: Kale Nagusia berritzea.

Eta hiru urratsetan egin dugu hori:

1. Lehenbizi 2014ko urrian egin genituen bileretan **kale berria diseinatzeko adostu genituen irizpideak** ekarri ditugu gogora.
2. Segidan, udaletxeko Hirigintza departamentuak **kalea berritzeko prestatu duen proposamen zehatza ezagutu dugu.**
3. Eta ondoren, Foroak proposamen horren gainean hausnartu eta eztabaidatu du, azkeneko diseinua hobetuko duten gustuko elementuak eta hobe daitezkeen alderdiak identifikatu eta bilatu nahian.

Egin dezagun bide hori, urratsez urrats.

2.1. Adostutako diseinu-irizpideak gogora ekartzea

Urriko tailerretan, nola irudikatu genuen Kale Nagusi berria? Zein irizpide adostu genituen kalea berritzeko?

Honako hauek:



Diseinurako irizpide orokorrak:

- Taxi-geralekutik Txokoraino % 100 oinezkoentzako kalea.
- Kale osoan tratamendu bateratua eta multzoarena.
- Irisgarritasuna erabatekoa eta oinezko joan-etorriak sustatzea.
- Zabalera –gutxienez 6 metroko zabalera librea- eta eremu irekia, lasaia eta segurua.
- Kale desberdina, modernoa, erakargarria eta originala.
- Mantentze-lanen kostu txikikoa.
- Eremu lasaia eta segurua.

Irizpideak elementu zehatzetarako:

- Kaleko argia:
 - LED teknologia.
 - Farolak kalean bertan –etxeetako fatxadetatik kenduko dira-.
 - Nafarroa kalean jarri den modelo bera.
- Berdeguneak:
 - Mugikorak, lekuz alda daitezkeen landare-ontziekin.
 - Espezie naturalekin.
 - Altuera txikiko landareak, zuhaixkak eta/edo zuhaitzak.
 - Koloredunak eta garaikoak.
 - Gune zehatzen batean (bidegurutzetan adibidez) elementu finkoren bat jar daiteke –ez oso handia-.
- Jarlekuak:
 - Ergonomikoak, bizkarraldearekin, gogorrak –ez bigunak- eta zabalak.
 - Lurzorura lotuta baina, era berean, erraz kentzeko modukoak.
 - Materiala: burdina eta egurra konbinatuta.
 - Multzoka kokatuta, elkarrekin egotea ahalbidetzeko.
 - Kopuru aproposa eta banaketa egokia.

Adostu genuen...

Irizpideak elementu zehatzetarako:

- Beste elementu batzuk:
 - Zoladura: koloretsua eta forma desberdinekoa (alfonbra edo beste batzuk).
 - Eszenatokia: plataforma txiki bat eta baxua jartzeko aukera aztertzea, bertan ekintzak antolatzeko eta haur txikienen jolasgune ere izan dadin.
 - Iturria –edateko ura-.

Azaldutako irizpideez gain, Kepa Urzelai alkateak beste hainbat kontuetarako planteatu ziren udal proposamen osagarriak ekarri ditu gogora:

Adostu genuen...


Beste udal proposamen osagarriak:

- Mandatu edo gestio azkarretarako auto-aparkalekua.
 - Mauleon hotelaren ondoan 6 auto aparkatzeko lekua.
 - Doako TAO sistemarekin, denborak kontrolatzeko.
 - Denden ordutegian -9:00etatik 13:00etara eta 17:00etatik 20:00etara- gehienez 30 minutu aparkatzeko aukera; ordutegi horretatik kanpo, aparkaleku librea.
 - Erosketetarako orgak uzteko leku bat egokitzeko aukera aztertuko da.
- Taxi en geraleku berria: Xarpot tabernaren ondoren, Junetorri autobusa plazan duen geralekuaren parean.
- Etxeko eta dendetako hondakinak biltzeko kokaleku berria; Kale Nagusitik Plazaola kalera pasatuko dira –bolatokiaren parean-.
- Kalea oinezkoentzako egokituko denean galduko diren aparkalekuetarako bestelako aukerak:
 - Zubialde eremuan 34 aparkaleku berri egokitu dira.
 - Azpikoetxeko aparkalekua ere egokitu egin da.
 - Lurpeko aparkalekuan plaza libreak daude; Udala aparkaleku horren erabilera nola hobetu eta optimizatu daitekeen aztertzen ari da.
 - Junetorri autobusa egunean zehar ordu zehatz batzuetan Kale Nagusitik pasa dadila azter daiteke.

2.2. Kale Nagusia berritzeko udal proposamena

Irizpideak gogora ekarri ondoren, **Kale Nagusia berritzeko Udalak egin duen proposamena** ezagutu dugu.

Hona hemen plano eta hainbat irudi, nola geratuko litzatekeen ikus dezagun:



Aitziberrek eta Anek, udal arkitektoak, proposamenaren gakoak identifikatzen lagundu digute eta taldeko kideen artean sortu diren zalantzak eta galderak argitu dizkigute:



Udal proposamenaren gakoak

- Planteamendua kalean bizi diren eta lan egiten duten pertsonen **protagonismo** handiagoa ematea da; horretarako galtzadako lauzen **koloreekin** jokatu da:
 - Atarietako sarrerak bereizteko lauzak beltzak jartzea proposatu da eta parean landare-ontzi bat, segurtasuna eta kolorea eskaintzeko.
 - Dendetako sarrerak eta mugak lauzak zuriekin identifikatu dira. Zoruko lerro zuriekin jolasteak eremuak eta erabilerak mugatzen lagunduko digu –adibidez terrazen kasuan-.
 - Gainera, proposatutako lauzak Legazpiko historiaren elementuak kontatzeko edo gertaera esanguratsuak azaltzeko erabil daitezke.
- Kale osoa unitate bat da; galtzada maila berean dago eta ahal den guztian erabat iristerraza da, trabarik gabea. Hainbat kasutan zaila izango da atari guztietan erabateko irisgarritasuna lortzea, atari guztiak ez daudelako kota berean.
- Kalean bertan oinezkoak, ziklistak eta bertatik pasatuko diren ibilgailuak aurkituko ditugu eta horien arteko elkarbizitza erraztea eta ahalbidetzea da helburua.




- Kale osoan **3,5 metroko zabalera** librea bermatzen da eta zabalera hori 6 metrora iritsi daiteke, distantzia hori beharrezkoa baita zenbait ekintzetarako. Horretarako elementu batzuk erretiratu egingo dira – landare-ontziak eta jarlekuak-.
- Isurbideak kalearen bi aldetan kokatu dira, farolek markatzen duten lerroa jarraituz –eta beraz, libre uzten da 6 metroko zabalera-. Kableak lurpean jarriko dira eta hobetu egingo dira kaleko lurpeko azpiegitura guztiak.

Udal proposamenaren gakoak



- **3 elkarguneak** –zirkulu laranja handiak- elkartzeko eta harremanak izateko eremutzat hartu dira eta hori ahalbidetzeko elementuak jarriko dira:
 - 1. eta 2. elkarguneetarako elementu organikoagoak proposatu dira:
 - Zirkulu gorriak: zuhaitz txikiren bat zoruan belar artifizialarekin.
 - Zirkulu laranja: landare-ontziak, jarlekuak eta zehazteko dauden beste elementu batzuk –jolasak, mahaia...-.
 - 2. elkargunean iturri bat jartzea proposatu da baina bere kokalekua zehaztu gabe dago oraindik –izkina batean-.
 - 3. elkargunean eszenatoki edo antzekoren bat jartzea proposatu da eta errepidetik babesteko landare-ontziak edo berdeguneak jarriko lirateke. Horrela, kalearen azken zati horri bizitza emango zaio eta Agirre-Etxeberri parkearekin hurbiltzea lortzen da.
 - Elkargune guztietan -1, 2, 3- larrialdietarako ibilgailuen pasabidea bermatuko da, gune horietatik beste kaleetara iristen baita.
- **Berdearen** tratamendua: batik bat loreontziak jarriko dira eta zenbait gunetan belar artifiziala.
- Kanean zehar **lasai egoteko guneak egokitzea** proposatu da, jarleku eroso eta ergonomikoekin. Jarlekuak mota desberdinekoak izango dira eta berde koloredun zoruan jarriko dira –adibide moduan goiko irudian zirkulu berdearekin adierazi dena-.



- **Zamalanetarako** 3 gune proposatu dira; irudian horiz markatu dira:
 - Dendetan egin beharreko zamalanetarako guneak dira –eta ez bizilagunentzako-. Ibilgailuak 3. elkargunetik irtengo dira.



Udal proposamenaren gakoak

- Bizilagunen ibilgailuen igarobideari dagokionez, Laubide auzoko kalean jokatzen den moduan jokatzea proposatu da:
 - Justifikatutako beharren bat dutenek –adibidez, mugitzeko zailtasunak duten pertsonak- eta etxera hurbiltzeko ibilgailua erabili beharra dutenek, aginte bat izango dute kalea ixten duten zutoinak kontrolatzeko.
 - Une zehatzetan edo larrialdietan kalera sartu beharra dagoenean, zamalanetarako ordutegian arazorik gabe sartu ahal izango da; ordutegi horretatik kanpo udaltzainei eskatuko zaie zutoinak jaista.
- **Materialei** dagokienez:
 - Irizpide orokorra mantentze-kostu txikiena izango dutenak lehenestea da –material estandarrak- eta Legazpitik gertu aurkituko ditugunak –egiten diren lekuari dagokionez-.
 - Argiak LED motakoak izango dira –iraupen luzeagoa eta matxura gutxiago-.

Azkenik, eta orain arte eman diren azalpenak osatzeko, osasunaren ikuspegitik proposamena nola aztertu den zehaztea merezi du.

Ihobek "Tokiko hirigintza-jarduerak osasunean zer eragin daukaten aztertzeko Gida praktikoa"² osatu du eta Legazpiko Udalak parte hartu du bertan esperientzia pilotu gisa. Gida horri esker, **Kale Nagusia berritzeak osasunean izan dezakeen eragina** identifikatu ahal izan da –marraztuta eskainitako proposamenean-.



² Gida hori ondoko loturan kontsultatu daiteke:

<http://www.ihobe.eus/Publicaciones/Ficha.aspx?IdMenu=750e07f4-11a4-40da-840c-0590b91bc032&Cod=c7b41c06-c532-4925-a64b-06a248edcfc9&Idioma=es-ES>

Eusko Jaurlaritzako Osasun saileko Carmenek eta Nagorek, ondorio nagusiak laburbildu dizkigute:

Kale Nagusia berritzeko proposamenak osasunean duen eragina:

- Kale Nagusia berritzeko egin den proposamenak...
 - Oinez, bizikletan eta mugitzeko beste era aktiboak sustatzen ditu eta auto-mendekotasuna murrizten du.
 - Bertakoa izatearen sentimendua bultzatzen du.
 - Espazio publiko irekiak, iristerrazak, erakargarriak eta seguruak sustatzen ditu.
 - Garrantzia historiko edo kulturala duten lekuak zaindu eta/edo hobetzen ditu.
 - Airearen kalitatea hobetzen laguntzen du.
 - Zaratek, usainek eta argiek sortzen dituzten ondoezak minimizatzen ditu. Dena den, zaratak ohartxo berezi bat merezi du: oinezkoentzako espazioa izateak terrazak jartzea ekarriko du eta hori kontrolatu beharreko kontua izango da.
- Eta hauek dira ondorioak osasunean:
 - Jarduera fisikoa sustatzen da eta trafiko istripuak gutxitzen dira.
 - Komunikazioa eta harreman sozialak bultzatzen dira.
 - Osasun mentala eta autoestimua hobetzen dira.
 - Handiagotu egiten dira segurtasun- eta babes-sentipenak.
 - Estres-mailak murrizten dira.

Ikuspegi eta ekarpen interesgarria! Beraz, "udalerrietan hirigintza-jarduerak planifikatzeko eta kudeatzeko prozesuetan osasunaren ikuspegia aintzat hartzeko" gomendioa jasota uzten dugu eta aurrera goaz.

2.3. Agenda 21eko Foroak proposamenari egiten dizkion ekarpenak

Proposamena mahai gainean dagoela, hartaz hausnartzeko eta eztabaidatzeko unea iritsi da. Horretarako taldetan banatu gara eta bi izan dira egin ditugun galdera errazak:



Proposamen honetatik,

1. Zer dugu gustuko?
2. Eta zer aldatuko-birpentsatuko-hobetuko genuke?

Ikus ditzagun partekatu ditugun ideia nagusiak:

1. Atsegin dugu...

Atsegin dugu!

- Iturria.
- Kalearen irudi orokorra.
- Galtzadan mezuekin jolasteko aukera.
- Atarietako sarrerak lauza ilunekin eta landare-ontziekin desberdintzea.
- Dena maila berean egotea eta kaleak hartzen duen zabaltasuna.
- Berderako zuhaixkak aukeratzea.
- Galtzadaren kolorea tonu desberdineko lauzekin lortzen dela eta ez pinturarekin.
- Isurbideak kalearen bi aldetan jartzea.
- Eszenatokiaren ideia –talde baten iritzia da baina beste taldeen iritzia kontrakoak dira-.

2. Aldiz, ondorengo gaiak berriz aztertu behar direla uste dugu...

Aztertzeko

- Kalearen **oreka**, bertako elementuei dagokienez:
 - Nola lortu kale erakargarria eta, era berean, argia, gehiegi kargatu gabe?
- Lauza zuriak:
 - Ez al dira lerro zuri larregi geratzen? Nola bultza daitezke atarietako eta dendetako sarrerak, estetika xumeago batekin?
- **Berdearen** planteamendua:
 - Belar artifiziala erabiltzearena ez da ondo ikusi ("zirkulu gorriak"); hobe berde naturala, lore koloretsuak,....
 - Zuhaitzak landatzearena zalantzan jarri da –mugi daitezkeen elementuak hobe-. Zuhaitzen bat landatzea erabakiz gero, txikia izan dadila.
 - Edozelan ere, landare-ontziak egoera onean mantentzearena aurreikusi behar da: nor arduratuko da eta arduradun horrek egingo du egoera onean eta politik egon daitezten?

Aztertzeko

- **3. elkargunerako proposamena**, eszenatokiaren ideiarekin:
 - Nola lor daiteke kalearen tarte horri bizitza handiagoa ematea eta, era berean, Agirre-Etxeberri parkearekin lotzea?
 - Proposamena agian ez da eszenatoki bat baina bai erakargarria izan daitekeen zerbait, erabilera askorako izan daitekeena, segurua izango dena, agian jarlekuekin jolastuz,.....
- Planteatu diren **jolas-elementuak** –“muino laranja”-:
 - Beharrekoak dira horiek Latxartegi parkea gertu dagoela kontuan hartuta? Haurrentzako eta gaztetxoentzako zerbait jartzekotan, zer komeni da? Zer da atsegin dutena?

Beldur batzuk ere sortu dira...

Aztertzeko

Beldur ulergarriak, Kale Nagusirako planteatu diren aldaketak handiak eta erabatekoak direlako; hortaz, ahalik eta hoberen kudeatu beharko dira aldaketa horiek. Aipatzen dira:

- **Espazio berdinean oinezkoak, ziklistak, patineteak, ... elkarrekin bizitzea**. Nola bermatzen da oinezkoen segurtasuna eta lasaitasuna? Nola landu daiteke erabilera desberdinen arteko elkarbizitza, oinezkoen kalean bizikleten eta patineteen erabilera debekatuz ez iristeko? Ikastetxeetan ikastaro bereziren bat egitea proposa daiteke?
- **Aparkalekuak** murrizteak eragin negatiboa du. Nahikoa izango al dira hartu diren neurri osagarriak? Horrezaz gain, Bergaran martxan jarri den ekimenaren berri eman da: garaje partikularren erabilera zergaren batean beharpenak eskaintzen saritzen da.
- Bizilagunek euren etxeetara autoz gerturatzeko izan dezaketen beharraren aurrean egon daitekeen **malgutasuna** –a priori adineko pertsonentzako aldaketa garrantzitsua da-.
- **Mantentze-lana**: landare-ontziak, landareak eta hiri-altzariak. Nola saihestu jokabide bandalikoak?
- Kaleko argiak; Nafarroa kalea ilun samar geratu dela adierazi da. Kale Nagusiak argi gehiago eduki beharko luke –a priori horrela aurreikusitako delako erantzun da-.
- Kale Nagusiko hainbat eraikinetan etorkizunean igogailuak kanpoaldetik jarriko balira, horrek eragin estetikoa izango du. Horren haritik, igogailuak jartzeko irizpide batzuk zehaztea komeniko litzatekeela esan da. Hirigintza Saileko ordezkariak gai hori aztertu dela eta proposamenaren diseinuan sartu dela erantzun dute.



Legazpiko Agenda 21 de Legazpi


Guztion parte hartzearekin, iraunkortasunaren bidean



Eta diseinua hobetzeko proposamen zehatzak egin dira

- Santikutz kalean oztoporen bat jartzea, bizikletak, patinak,... Kale Nagusira abiadura handian sartu ez daitezen.
- Zamalanetarako ordutegian **Santikutz kalearen erabilera malgua** egiteko aukera aztertzea –ibilgailuak uzteko-.
- Kalea itxiko duten zutoinen **giltzak** bateratzeko aukera teknikoa aztertzea, hau da, giltza bakarra izatea –larrialdietan edo beharra dagoenean egoera kudeatzea errazagoa izan dadin-.
- Kale Nagusian dauden eta eremu pribatuko jabegoak bereizten dituzten **hormak** aldatzeko konponbide bat bilatzea. Zentzu horretan jabeekin harremanetan daudela erantzun da, eremu horien estetika hobetzeko.
- Txomineko pasabidea hobetzea: zorua oso irristagarria da.

Laburtuz esan dezakegu etorkizuneko Kale Nagusia osatuta dagoela; orain kalea benetan atsegina, erakargarria eta eroso egingo duten elementuak zehaztea falta da.



2.4. Horrekin guziarekin...

Kepa Urzelai alkateak adierazi duenaren arabera, gaur jaso diren ekarpenekin Hirigintza Sailak behin betiko proiektua egingo du. Proiektuaren berri bide desberdinetatik jakinaraziko zaie legazpiarrei –udal webgunea...-. Azken emaitza ikusteko zain geratzen gara!

3. Tailerra ixtea

Arratsaldeko 20:45ak direnean amaitutzat eman dugu tailerra. Gaur luzeagoa egin dugu saioa! Baina taldeari so eginez eta entzunez luzatu gara, taldekideen interesa eta jakin-nahia ikusiz. Zuen konpromisoari esker.

Beraz... ¡benetan eskertzen dizuegu zuen pazientzia, eta batik bat, Kale Nagusi hobetuagoa diseinatzea ahalbidetuko duten ekarpenak egiten jarri duzen ahalegina.



Legazpiko Agenda 21 de Legazpi

Guztion parte hartzearekin, iraunkortasunaren bidean



Eta bukatzeko, Kepa Urzelai alkateak Agenda 21eko **Foroaren kudeaketari** buruz esan duenarekin geratzen gara: arrazoi administratiboak direla eta, azkeneko urtean Prometea enpresak egin duen Foroaren dinamizazio-lanak lehiaketara atera dira. Jasoko diren proposamenetatik, Udalak ezarritako irizpideak hoberen beteko dituen aukeratu du eta aukeratu izango den lantaldearekin adostuko da 2015eko egutegia alde batetik eta egingo diren tailerren proposamena.

Hortaz, gai hori irekita dago eta zer geratuko den ikusten zain geratzen gara. Bitartean, agur esaten diogu elkarri!

Eskerrik asko!!!

Beti bezala, plazer bat izan da!